

EKAINAREN 5ean, EMAN BOTOA LABi

Botu-papera hautatzeko garaia da

Azken lau urteotan LABen jokabidea ikusteko aukera izan duzu. Frogatu dugu nola egiten dugun lan, egunez egun, Justizia Administrazioako langileen eskubideen alde.

Nabaria da, ez negoziazioa, ez auzibidea ez direla nahikoak: negoziazioa hutsaren hurrengo bihurtu du Eusko Jaurlaritzak; eta auziak ausazko jokoak bezalakoak izaten dira sarri askotan. Auzitegietara jotzeak arrisku handia badakar ere eta interlokuziorik ezak haietara behartzen bagaituzte ere, kontziente izan behar gara batzuetan mobilizazioa eta zuzeneko ekintza sindikala beste biderik ez dagoela.

Urte gogorak datozkigu: administrazioak dituen helburuetako bat da gure lan-eskubideak urritzea. Horrexegatik, LAB inoiz baino beharrezkoago da negoziazio-mahaian, zein auzitegietan. Eta are inportanteagoa dena, horiek denek huts egiten dutela, borrokan.

Izan ere, datorkigun etapa berrian munta handiko erronketan murgildu beharko dugu. Baina erronka horiek programa bat baino zertxobait gehiago behar dute. Sindikalgintza militante eta sutsua eskatzen baitute, beldur gabe aritzen dena, nola borroka buruan hala nogoziazio mahaietan.

Haatik, ororen gainera behar duguna da zintzo eta garden ekiten duen sindikalismoa, analisiak eta proposamenak langileei eta administrazioari helarazteko lotsa barik arituko dena. Etsitzen ez duen sindikatu baten beharra daukagu, LABek egin ohi duen bezala.

Ezagutzen gaituzu, ikusten gaituzu lehen-lehen lerroan eta badakizu, jakin, bidegabekeriei aurre egiten jarraituko dugula. LABi emandako botoak zuretzat bermea esan nahi du eta baita borrokatzea merezi duela sinesten duten horientzat bultzada ekarri ere.



EL 5 DE JUNIO, TU VOTO A LAB

Toca escoger la papeleta

Durante estos últimos cuatro años has tenido la oportunidad de ver cómo funcionamos en LAB. Hemos demostrado cómo trabajamos, día a día, en defensa de los derechos de las trabajadoras y de los trabajadores de la Administración de Justicia.

Queda demostrado que ni la negociación ni la vía judicial son suficientes: el Gobierno Vasco, de facto, se niega a negociar; y los juicios muy a menudo son como los juegos de azar. A pesar de que los tribunales conllevan un alto riesgo y que la falta de interlocución a menudo nos aboca a ellos, tenemos que ser conscientes de que en ocasiones no nos queda más que la alternativa de la movilización y la acción sindical directa.

Llegan años duros porque la administración se ha marcado como objetivo quitarnos derechos laborales. Es por ello que LAB es más necesario que nunca, en la mesa de negociación y también en los tribunales. Pero más importante que eso, en esos momentos en los que todo falla, en la pelea.

Para esta nueva etapa se nos presentan importantes retos, retos que precisan algo más que un programa. Exigen un sindicalismo militante y entregado, sin miedo, tanto para encabezar la pelea como para negociar cuando toca.

Pero, sobre todo, necesitamos un sindicalismo honrado y transparente, que ponga sin complejos, sus análisis y sus propuestas ante las trabajadoras y trabajadores y la administración. Nos hace falta un sindicato que no se rinda, como hacemos en LAB.

Nos conoces, nos has visto en primera línea y sabes que vamos a seguir haciéndoles frente a las injusticias. Tu voto a LAB es una garantía para ti y un impulso para quienes creen que luchar merece la pena.